

**EUSKAL KULTURA-ONDAREARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA
EGITEKO PROZEDURAREN AZKEN MEMORIA****I.- MEMORIAREN XEDEA**

Memoria honen xedea da Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari bultzada ematea, kontuan hartuz Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak emandako txostena, zehazki, Gobernu Kontseiluak lege-aurreproiektu bera aurreko legegintzaldiaren baldintzetan berriro onartzeko aukerari buruz.

Hortaz, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozesu osoaren kontu emango da, eta aurreproiektuaren ildo nagusiak zer-nola taxutu diren azalduko da. Horrenbestez, helburua da prozesuan gauzatu diren askotariko izapideen ikuspegi integrala ematea, bideratutako kontsultetan eta prestatutako txostenetan egindako ohar eta proposamenena, eta haiek zentzu batean zein bestean aintzat hartzeko oinarriena, ondoren, are errazago uler dadin amaierako testua Gobernu Kontseilura bidaltzen denean, hark hausnartu eta onar dezan. Hori guztiori, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena, aurrerantzean, XOEPL) 12. artikuluan ezarritakoa betetzeko; izan ere, xedapen horrek adierazten du prozedura guztiaren memoria labur bat egin behar dela, aipatu legearen 10.2 artikuluan zehaztutako edukiarekin, Gobernu Kontseiluak azken onespena eman diezaion.

II.- KULTURA-ONDAREAREN ARLOKO ESKUMENA

Euskal Autonomia Erkidegoak kulturaren arloan duen eskumen eskusiboaren esparruan, Euskal Kultura Ondarearen Legea onartu zen (uztailaren 3ko 7/1990). Memoria honen xede den lege-proposamenean, lege horren aldaketa proposatzen da.

Lege-ekimen berriaren oinarri dira Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluen 17. eta 19. zenbakietan Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako kulturaren arloko eskumenak. 17. zenbakian agindutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kulturaren arloko eskumen eskusiboa du, Konstituzioaren 149.2. artikuluan ezarritakoa gorabehera. Artikulu horrek xedatzen duenez, autonomia-erkidegoek bereganatutako eskumenak edozein direla ere, Estatuak autonomia-erkidegoen arteko kultur-harremanak erraztu behar ditu. Bestalde, 19. zenbakiak Autonomia Erkidegoari ematen dio ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren gaineko eskumen



esklusiboa, eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen du Estatuak ezartzen dituen arau eta betebeharren betetzea, ondare hori esportazioaren eta espoliazioaren aurrean babesteko.

Lege-proposamen berriak begirunea gordetzen die lurralde historikoek eta udalek arlo horretan dituzten eskumenei, 3. artikuluan ezartzen den moduan. Artikulu horrek zehazten du zer-nolako eskumen-banaketa izango den, kultur ondarearen arloan, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen artean.

III.- ABIAPUNTUKO EGOERA

Euskadiko museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legeak eta Euskadiko liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak aldatu dute Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-ondarea eta artxibo sistema arautzen dituen lege-aurreproiektua dago sartuta Eusko Jaurlaritzaren legegintzaldi honen legegintzako programan. Hau da, kultura-, museo-, liburutegi- eta artxibo-erakundeen mendeko elementu, funts eta bildumak zehazki erregulatuak izan dira edo erregulatuko dira, arlo horietako nazioarteko erakundeak zehazten ari diren nazioarteko estandarretan oinarrituta.

Kultura-ondarearen alde oso garrantzitsu bat dago, lurraldeari, ondasun higiezinari, higigarriari edo, besterik gabe, erkidego bati lotuta, mota askotako ziurgabetasunen mende, eta beharrezkoa da hura berariaz babestea eta araupetzea, haren zaintza, hedapena eta gozamena bermatze aldera.

Bestalde, kultura-ondare material eta immaterialaren ezagutzak eta kudeaketak aldaketa adierazgarriak izan ditu azken urteotan, eta horrenbestez, justifikatuta dago 1990ean onartutako araua sakon berraztertzea.

Hain garrantzitsuak izan dira aldaketa horiek, ezen gure inguruneko autonomia-erkidego gehien-gehienek, bigarrenaz eta hirugarrenez ere, aldatu behar izan baitituzte haien kultur-ondareari buruzko legeak.



IV.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBA NAGUSIAK

Gaur egungo egoeraren ordezeko alternatibak proposatzeko, nazioarteko, estatutuko nahiz autonomiako araudiari erreparatu zaio. Era berean, aintzat hartu dira UNESCOk emandako Gutun eta Gomendioak, bai eta Europako Erkidegoko Zuzentarauak ere.

Lehenik eta behin, lege-proposamen berriak hiru alor argitan egituratzen du kultur ondarea –hau da, kultur ondare higiezin, higigarria eta immateriala–, 7/1990 Legean jasotako egituraren ordezkari. Izan ere, lege horretan, nahasgarriagoa da banaketa eta ez da hain eraginkorra, ondasun higiezin, higigarri, arkeologiko eta etnografiko hitzak erabiltzen baitira esparru haietarako. 7/1990 Legearen egituratzeak gainjartzeak dakartza (ondare arkeologikoa eta etnografikoa higiezin nahiz higigarria izan daiteke) eta ez du berariaz aintzatesten ondare immateriala. Ondorioz, kultur ondarearen barruan hiru esparru horien artean bereiztearen alde jo da, oraintsuago onartutako kultur ondareko legeetan ere egiten ari den bezala.

Bigarrenik, arau berriak ez ditu babes-maila kopuru berak ezartzen kultur ondarearen esparru guztietarako, 1990ko Legeaz bestera, non bi babes-maila bereizten diren bai ondare higiezinentzat eta bai higigarrientzat ere: kalifikatua eta inbentariatua.

Lege berrian hiru babes-maila proposatzen dira kultur ondare higiezinarako: bi ondare higigarriarako eta bat immaterialarako. Horretarako, ondarearen balio kulturalen maila ez ezik, aintzat hartu da kasuan-kasuan onartuko diren esku-hartzeen maila ere.

Hala, proportziozkoa ez den harremana ezartzen da ondarearen garrantzi kulturalaren eta baimendutako esku-hartzeen araubidearen artean: Babes Bereziko Kultur Ondareentzat onartuko esku-hartzeen araubidea murriztaileagoa da, eta, nagusiki, finkatzeko eta zaharberritzeko lanak hartuko ditu; Babes Ertaineko Kultur Ondareentzat esku-hartzeen araubide malguagoa onartu da, batik bat, eraikinari erabilera berria ematera bideratua; eta Oinarrizko Babeseko Kultur Ondareei dagokienez, eraispena saihestea da helburua, hau da, kanpo-egiturak mantentzea.

Ondasun higigarrien kasuan, nahikotzat jo da bi babes-maila bereiztea: Babes Bereziko Kultur Ondareak, zaharberritze-lanetarako lehenetsiko direnak, betiere aurretiazko baimena emanda; eta Babes Ertaineko Kultur Ondareak. Azken horietan, egonkor eta baldintza egokietan mantentzen direla ziurtatuko duten prebentziozko zaintza-betekizunak betetzen direla bermatu behar da.



Ondare immaterialei dagokienez, erkidegoei daude lotuta eta, horrenbestez, eboluzionatzeko gaitasun handiagoa dute. Horien babes-estrategia ez da erabilera araupetzeari eta baimentzeari begirakoa; kontrara, ondareen eramaile diren erkidegoak babestera bideratu da, haien benetakotasuna mantentzeko eta etorkizuneko belaunaldiari transmititzen zaiela bermatzeko. Horiek horrela, askitzat jo da babes maila bakarra zehaztea.

Hirugarrenik, kategoriekin erlazionatutako proposamena aldatu da. 7/1990 Legeak hiru kategoria soilik bereizten ditu ondasun higiezin eta higigarriei aplikatzeko: monumentua, monumentu-multzoa eta kultur espazioa. Lege-proiektuak, kultur ondarearen lege-erregulazio arloan beste herrialde eta erkidego batzuetako joerarekin bat, kategoria horiek zabaldu eta esparrutan banatzen ditu, hobe egoki daitezen kultur ondarea babesteko orduan ager daitezkeen egoera ugarietara. Ondare higiezinen kasuan, sei kategoria desberdintzen ditu: monumentua, monumentu-multzoa, eremu arkeologikoa edo paleontologikoa, gune historikoa, paisaia kulturala eta ibilbide kulturala. Hau da, ondasun higigarriak babesteko, nahikotzat jo da beste ondasun higigarri, higiezin nahiz immaterial batzuei lotutako ondasunen eta beste inongo ondasuni lotuta ez daudenen artean bereiztea. Ondasun higiezinentzat, aldiz, Ondare Immaterialaren 2003ko Konbentzioak markatutako bideari jarraikiz, beste bost kategoria hartu dira kontuan: kulturaren tradizioak eta ahozko adierazpenak; ikuskizun-arteak; erabilera sozialak, erritualak eta jai-ekitaldiak; artisautzako ezagutza eta teknikak; eta elikatze moduak eta sukaldaritzako sistemak.

Laugarrenik, ondare babestuen arloan errespetatu behar diren esku-hartzeko irizpideak erregulatu dira; 7/1990 Legean, doi-doi jorratzen da gai hori. Zehazki, lege-proposamenak zortzi artikulua ematen dizkio Babes Bereziko eta Babes Ertaineko Kultur Ondareei dagokienez aintzat hartu beharreko irizpideen formulazioari. Irizpide batzuk orokorrak dira; beste batzuk, berriz, espezifikoak, babes-mailaren eta esparruaren arabekoak. Oinarrizko Babeseko Ondareei dagokienez, kasuan kasuko hirigintzako udal-tresnaren bitartez erregulatzen dira babeserako irizpideak. Zortzi artikulua horiei, idazketa berriko beste bi gehitu zaizkie, esku-hartzearen proiektua eta memoria teknikoa egiteko derrigortasuna ezartzeko. Orobat, Babes Bereziko eta Ertaineko Ondareek barne hartu behar dituzten edukiak aurreikusi dira.

Legean esku-hartzeko irizpideak erregulatzeak lege-maila ematen die Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun kultur ondarea kudeatzeko onartzen diren erreferentzia teknikoei. Irizpide horiek legean sartzeak EAEko kultur ondarearen kudeaketa eguneratzea eta eraberritzea bultzatuko du, etorkizunean babes-araubideak prestatzea eta idaztea erraztuko du, babesari segurtasun juridiko handiagoa ekarriko dio, eta erraztuko du, halaber, foru aldundiei babestutako ondasunen gain esku-hartzeko baimenak ematea.



Bosgarrenik, erakundearteko aholkularitza- eta koordinazio-organo bana sortu da lege-proiektu berrian. 7/1990 Legean, berriz, ez daude aurreikusita. Erabat beharrezkoa da Euskal Kultur Ondarearen Kontseilua sortzea kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa, zientziaren diziplina eta ezagutzaren esparru oso desberdinak biltzen dituen kudeaketa publikoko esparru batean. Kontzeptuzko arrazoiak (ondare higigarri, higiezin eta immaterialaren artean gero eta gehiago ikus daitezkeen harremanak, bai eta ondare kultural eta naturalaren artekoak ere) eta kudeaketaren malgutasuna dela eta, aholkularitza-organo bakarra sortzea proposatu da, zeinak barne antolaketarako aukera izango baitu egoki jotzen diren ponentzia, azpibatzerde edo lantaldeen arabera.

Euskal Kultur Ondarearen Erakundearteko Organoa sortzeak jarduketak bi norabideetan koordinatzeko premiari erantzuten dio: bata erakundeartekoa, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen artean, non, eskumen-banaketa gorabehera, erakunde-maila bateko erabakiek beste erakunde-mailetan eragiten baitute; eta sailartekoa edo sektoreartekoa, aintzat hartzen badugu gero eta harreman handiagoa ikus daitekeela kultur ondarearen kudeaketaren eta, besteak beste, ingurumenaren, nekazaritzaren eta turismoaren artean.

Seigarrenik eta amaitzeko, babestutako kultur ondasunen erregistro bi sortzen dira. Kopuruari begira, gaur egungo legearen berdina da, baina edukia bestelakoa da: lehen erregistroa Eusko Jaurlaritzak aitortutako Babes Bereziko eta Ertaineko Ondareek osatuko dute; bestea, berriz, Oinarritzko Babeserako espezifikoa izango da, eta udal-katalogoetan jasotako informazioarekin elikatuko da. Bi erregistro aukeratu dira, batik bat, praktikotasunagatik, desberdin tratatzen eta kudeatzen direlako udal-katalogoetan jasotako informazioa eta Eusko Jaurlaritzak babestutako ondareena.



IV.- EGINDAKO IZAPIDEAK

Tramitazioari eta prozedurari dagokionez, bete egin da abenduaren 22ko 8/2003 Legea, xedapen orokorrak egiteko prozedura ordenatzeko asmoz emana; baita lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko gidalerroak ere (1993ko apirilaren 19ko EHAA, 71. zk.); eta, azkenik, erreparatu zaio Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Akordioan ezarritakoari ere (horretan, xedapen orokorrak tramitatzeko jarraibideak onartzen dira).

Prozedurak garrantzi handia du. Betebeharrak betetzeaz eta teknika juridikoa zuzen erabiltzeaz gain, horrek bermatzen du printzipio juridikoak errespetatzen direla, botere publikoen jardura guztiek Legea eta Zuzenbidea betetzen dutela, ordenamendu juridikoa eraginkorra dela eta, hitz batez, ekimen horien hartzailen eskubideak errespetatzen direla.

Aholku Batzorde Juridikoak adierazi bezala (Aholku Batzorde Juridikoaren 28/1999 Irizpena, 8. zk.), «prozedurak —alderdi formal, material zein substantiboan— lege-, arrakasta- eta egokitasun-bermea ematen die ordenamendu juridiko autonomikoan eraginkortasunez, erabilgarritasunez eta iraunkortasunez txertatzea xede duten administrazio-erabakiei».

Horiek horrela, jarraian azaltzen dira Lege-proiektua egiteko prozeduran gauzatu diren jarduerak:

1.- Hasteko agindua

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2015eko otsailaren 24an emandako Aginduaren bitartez, hasiera eman zitzaion Euskal Kultur Ondarearen Lege-aurreproiektua egiteko prozedurari.

2.- Aurretiko onarpen-agindua

Geroago, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko zerbitzu teknikoek aurreproiektuaren testua egin ondoren, onartu egin zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2015eko martxoaren 12an emandako Agindu bidez.

3.- Jendaurreko informazioaren, alegazioen, eta beste administrazio publikoei txostenak eta entzunaldiak egiteko izapideak



Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako aurreproiektua eraginpean egon zitezkeen erakundeei bidali zitzaien, entzunaldiko izapidea betetzeko.

Horrez gain, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2015eko otsailaren 6ko Ebazpena argitaratu zen 2015eko uztailaren 9ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Kultur Ondarearen Lege-aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

Era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren txosten juridikoaren ostean, aldaketen memoria egin zen, bide eman ziona Lege-aurreproiektuaren bertsio berri bati.

Euskal Kultur Ondarearen Lege-aurreproiektuaren jendaurreko informazio fasean, hamabost alegazio-idatzi aurkeztu zaizkio argitaratutako testuari:

- Horietatik hiru Eusko Jaurlaritzako sailei dagozkie: zehazki, Herri Administrazio eta Justizia Sailari, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari (gaur egun, sail hauei dagozkie: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Lan eta Justizia Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila eta Ogasun eta Ekonomia Saila).
- Foru aldundiei beste hiru dagozkie: bakoitzari bat. Foru aldundiek egindako ekarpenak baterako kontraste- eta analisi-prozesu berezi baten xede izan dira eta, ondorioz, esan daiteke ia erabateko adostasuna lortu dela Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien artean proposatutako testuan.
- EMAKUNDE
- Getxoko Udala.
- EHUren Kultura-Paisaia, Lurraldea eta Ondarea Unesco katedra.
- Lehiaren Euskal Agintaritza.
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
- Beste hiru kultur arloko elkarte eta enpresei dagozkie: Mutriku Natur Taldea, Arabako Arkeologia Institutua eta Albayalde enpresa (kultur ondare higigarrian espezializatua).
- Juan Ramón Lombera García, arkitektoa, bere izenean.



Jendaurreko informazioaren eta alegazioen epea amaitu eta gero, balorazio-txosten bat egin zen, Kultur Ondarearen zuzendariak 2015eko azaroaren 2an sinatuta. Txostenean xeheki aztertzen dira egindako alegazio eta emandako txosten guztiak, eta idatziz jaso dira testuan sartutako aldaketak, testuaren beste bertsio bat prestatzea eragin dutenak.

Ondoren, Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Kontseiluak 2015eko azaroaren 26ko 19/15 Irizpena eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2016ko urtarrilaren 28ko txostena eman eta gero, Kultur Ondarearen zuzendariak sinatutako balorazio-txosten bi eman zituen, bai eta Euskal Kultur Ondareari buruzko Lege-aurreproiektuaren bi bertsio berri ere.

Barruko aginduzko txostenei dagokionez, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak aurreproiektuak aurreikusitako egitura-, antolamendu- eta prozedura-alderdiei buruzko iritzia eman zuen.

Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena langilearen gaiari eragiten dioten arazoetan oinarritu zen.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena eskatu bazen ere, ez zen bideratu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua xedatzen duen txostena landu zuen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak; horrek eraginaren txostenari buruzko hainbat ohar ditu — positiboki baloratzen da informazioa sexuaren arabera bereizita biltzeko proposamena— eta hobetzeko proposamen batzuk egiten dira — aurreproiektuaren edukiari buruz.

Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailek ere esku-hartu zuten prozeduran, hainbat hondar paleontologikori buruzko eskumenak ikusita, eta Ogasun eta Finantza Sailak, ondarearen ikuspegitik.

Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari kontsulta egin zitzaion, eta hark lehiaren sustapenaren ikuspegitik aztertu zuen. Eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari ere bai, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 a) artikuluen arabera emana. Azaroaren 26ko 19/15 Irizpenean, aurreproiektuaren aurrekariak eta edukiak aipatzean, zenbait ohar orokor eta espezifiko azaltzen ditu.

Era berean, aipatutako txostenak aztertu ziren, organo guztiek planteatutako proposamen eta alternatibei erantzunez.



Balorazio ekonomikoari dagokionez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak nahitaezko txostena egin zuen. Txosten hori aztertu zen, memoria berria sortu zen, eta iradokizunen batzuk onartzean, aurreproiektuaren bertsio berri bat idatzi zen.

Geroago, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpidea igorri zuen 2016ko apirilaren 13an, zeinak hainbat ohar eta iradokizun dituen. Irizpenaren atzetik, memoria egin zen, zeinak Euskal Kultur Ondareari buruzko Lege-aurreproiektua aldatzeko Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egindako proposamenen azterketa zehatza jasotzen duen; horrez gain, kasu bakoitzean adieraziko da onartu den edo ez onartzeko arrazoiak. Halaber, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikuluan aurreikusitako betebeharraren arabera, egindako oharak kontuan hartu eta gero, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari jakinarazi zitzaion xedapena, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren 34. artikuluan ezarritako modu eta epearen arabera (167/2006 Dekretuak onartua, irailaren 12koa).

Horregatik, azkenean onartutako xedapena Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2016ko apirilaren 19an.

V. GOBERNU KONTSEILUAK ONARTZEA LEHENAGO ONARTUTAKO LEGE-PROIEKTUA

Lehenago adierazi bezala, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak txostena egin zuen Gobernu Kontseiluak Lege-aurreproiektua berriro onartzeko aukeraren bideragarritasun juridikoari buruz, aurreko legegintzaldiaren baldintza berdinetan, geroago lege-proiektu gisa Legebiltzarrera bidaltzeko, aldeztu aurretik izapiderik egin beharrik gabe eta aurretik egindako prozedurazko izapideak baliodunak direla onartuta.

Ildo horretatik, txosten horren arabera, egungo eta indarreko Gobernu Kontseiluak adostu dezake, Gobernuaren Legeko 16. eta 18.a) artikuluek aitortzen dizkioten legegintzako ekimen-ahala erabiliz, lehenago onartutako "lege-proiektua" onartzea eta Legebiltzarrera bidaltzea, eskumenak dituen sailburuak (edo batzuk, eskumeneko batzuk badira) aurkeztu eta gero dagokion proposamena. Hortaz, aurreko legegintzaldian egindako izapideak ikusita, ulertu behar da lehenago onartutako Euskal Kultura Ondarearen Lege-aurreproiektua indarrean jarraitzen duela erabat; hori dela eta, berriro aurkeztea proposatzen da, geroago Gobernu Kontseiluak onar dezan, GLaren 26.8 artikulua ezartzen duena aplikatuta.

Era berean, memoria honen arabera, araudiaren bideragarritasuna indarrean dagoela baiesten da, hau da, aurreko onarpena izan eta gero onartutako arauak ez diote eragin lege-aurreproiektuari. Adierazi behar da Espainiatik edo



Europar Batasuneko kidea den estatu batetik legez kontra atera diren kultura-ondasunak itzultzeari buruzko apirilaren 18ko 1/2017 Legea indarrean sartzeak ez diola eragin indarreko araudi autonomikoari. Lege horrek Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen du 2014/60/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta 2014ko maiatzaren 15eko Kontseiluarena.

Azkenik, egiaztatu beharko du aurreko legegintzaldian egindako izapideek erabat indarrean jarraitzen dutela (lehenago esan bezala) eta antolamendu juridikoaren aukera eta behar berritzaileak Euskadiko Kultura Ondareari dagokionez.

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

IMANOL AGOTE ALBERRO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburua

Kultura Ondarearen Zuzendaritza